

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

3/2026 Foru Araua, ekainaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan egiten diren egonaldi turistikoek gaineko zergarena.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onetsi dutela «3/2026 Foru Araua, ekainaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan egiten diren egonaldi turistikoek gaineko zergarena»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2026ko ekainaren 12a.—Eider Mendoza Larrañaga, Gipuzkoako diputatu nagusia. (4083)

HITZAURREA

Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 9. artikuluan ezarzen duenez, toki entitateen finantza baliabideek proportzionalak izan behar dute Konstituzioan edo legeetan aurreikusten diren eskumenekiko, eta haien sistema finantzarioek izaera dibertsifikatua eta ebolutiboa eduki behar dute, esleituak dituzten eskumenak baliatzeak dakartzan kostuen benetako bilakaerari egoki jarraitzea ahalbidetzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsiak, Toki Ogasunei buruzko xedapenak arautzen ditu 15. sekzioko 39. artikulutik 42. artikulura bitartean, biak barne.

Azken artikulua horretan esaten du lurralde historikoetako erakunde eskudunek toki entitateen beste tributu propioen araubidea mantendu, ezarri eta arautu dezaketela, bakoitzak bere lurraldearen barruan.

Bestalde, uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau erregulatuak Gipuzkoako udalerrien zergen erregulazioa jasotzen du 19. artikuluan.

Euskal Autonomia Erkidegoko toki ogasunek udalerrien autonomiari eta finantza nahikotasunari buruz dituzten jarduketa printzipioetan oinarrituta (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean jasota daude printzipio horiek), tributuak finantzaketa indartzen du toki entitateen finantza jasagarritasuna ziurtatzeko eta, horrela, herritarrei zerbitzuak egoki ematen zaizkiela bermatzeko.

Egonaldi turistikoek gaineko zerga bat onesteak ez du aurrekaririk toki entitateen eremuan; hala ere, badira zenbait autonomia erkidego (Katalunia, Balear Uharteak eta Galizia) sektore horretan zerga formula autonomikoak ezarri dituztenak ingurumenaren ikuspegitik eta alde sozialetik turismoak dakarren kostu gero eta handiagoa gizarteari konpentsatzeko eta turismo sektorearen lehiakortasuna harmonizatu eta hobetzeko, udal esparruan turismo jasagarri, arduratsu eta kalitatezko bat eskainiz

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADA GENERAL

Norma Foral 3/2026, de 12 de junio, del impuesto sobre estancias turísticas en los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

LA DIPUTADA GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 3/2026, de 12 de junio, del impuesto sobre estancias turísticas en los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 12 de junio de 2026.—La diputada general de Gipuzkoa, Eider Mendoza Larrañaga. (4083)

PREÁMBULO

La Carta Europea de Autonomía Local establece en su artículo 9 que los recursos financieros de las entidades locales deben ser proporcionales a las competencias que hayan sido previstas por la Constitución o las leyes, y sus sistemas financieros deben ser de una naturaleza suficientemente diversificada y evolutiva como para permitirles seguir la evolución real de los costes del ejercicio de aquellas que tengan atribuidas.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, regula en su sección 15.^a, artículos 39 a 42, ambos inclusive, las disposiciones referidas a las Haciendas Locales.

En el último de los preceptos citados se establece la posibilidad de que las Instituciones competentes de los Territorios Históricos puedan mantener, establecer y regular, dentro de su territorio, el régimen tributario de otros tributos propios de las Entidades Locales.

Por su parte, la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa determina en su artículo 19 la regulación de los impuestos de los municipios guipuzcoanos.

Con fundamento en los principios de actuación de las Haciendas Locales vascas de autonomía y suficiencia financiera de los municipios, recogidos en la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, el tributo refuerza la financiación para asegurar la sostenibilidad financiera de las entidades locales que permita garantizar una adecuada prestación de servicios a la ciudadanía.

La aprobación de un impuesto de estancias turísticas carece de antecedentes en el ámbito local, si bien diferentes Comunidades Autónomas como Cataluña, Islas Baleares y Galicia, se han dotado de fórmulas impositivas autonómicas en este sector al objeto de compensar a la sociedad por el incremento de costes medioambientales y sociales que la actividad turística conlleva, así como para armonizar y mejorar la competitividad del sector turístico por medio de un turismo sostenible, responsable y de

eta ostatu plazak hobetuz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan ematen diren zerbitzu publikoen kalitatea gehiegi kaltetu edo narriatu gabe.

Zerga honen erregulazioak Gipuzkoako Lurralde Historikoko turismo establezimenduetan egoteagatik pertsona fisikoek agerian jartzen duten ahalmen ekonomiko berezia zergapetzen du, baina, betiere, haren ondorioz sortzen den karga tributarioa modulatu turismo jarduerak Gipuzkoako udalerrietan dituen errealitate desberdinak kontuan hartuta.

Atariko tituluan xedatu bezala, foru arau honek berehalakoa den tributu bat sortzen eta arautzen du, hain zuzen ere, turismoko ostatu establezimenduetan –baita gurutzaontzi turistikoetan ere– egoteagatik pertsona fisikoek agerian jartzen duten ahalmen ekonomiko berezia zergapetzen duena. Lurralde historiko osoan aplikatuko da, eta establezimenduak Gipuzkoako zein udalerritan kokatuta dauden, eta bertako udalek izango dute hura ordainarazteko eskumena.

Foru arauaren I. tituluak zerga egitatea eta tributuaren salbuespenak arautzen ditu. Horrela, 4. artikulua dio zerga egitatea turismo establezimenduetan eguneko edo zatikiko egiten diren egonaldiak eratuko dutela, izan bertan lo eginda izan lo egin gabe; eta hurrengo artikuluan tribututik salbuesteko kasuak zehazten dira, horiek aplikatzeko baldintzak ere barne.

Bestalde, foru arau honen II. tituluak zergaren aplikazio eremu subjektiboa arautzen du. Zergaren subjektu pasiboen definizioan pertsona fisikoak sartzen ditu zergadun gisa, baita haren ordezkoren figura garrantzitsua ere, eta zerga zorraren gainean izan daitezkeen erantzukizun kasuak arautzen ditu.

Horren ondoren, foru arauak honako hauek ezartzen ditu III. tituluak: zerga oinarria, egonaldi unitateen arabera kalkulatu; kuota tributarioa, gutxieneko eta gehieneko karga tasa jakin batzuk aplikatuta aterako dena turismoko ostatu establezimendu motari erreparatuta; hobariak eta errekarguak ezartzeko aukera; eta, azkenik, zergaren sortzapena eta exijigarritasuna, egonaldi turistikoaren hasieran gertatuko dena, kasuan-kasuko egonaldi unitateen arabera.

Artikulatua osatuz, IV. tituluak zergaren kudeaketari buruzko alderdiak aipatzen ditu, eta horien artean daude zergaren autoliquidazioa eta ordainketa, ukitutako establezimenduak identifikatzeko modua, informatzeko betebeharraren zehaztapena, eta zerga kudeatu, ikuskatu, bildu eta berrikusteko ahalmenak babesten dituzten eskumenen eremua.

Horrez gain, testuak hiru xedapen gehigarri jasotzen ditu. Lehenengoak ezartzen du udalek dagokien ordenantza fiskala onartu ezean foru arauan aurreikusten diren gehieneko karga tasak aplikatuko direla. Bigarrenak, bere aldetik, dio 2026ko otsailaren 5a baino lehen egindako erreserbei ez zaiela zerga exijituko. Eta, azkenik, hirugarrenak foru araua berrikusi eta aztertzeo epealdi bat zehazten du.

Bukatzeko, azken xedapenetan honako hau egiten da: lehenengoan, udal araudia aldatzen da tributu hau tokiko esparruan araututako barruan sartzeko; bigarrenen, behar den arau gaikuntza ematen da; eta, azkenik, hirugarrenean, zehazten da araua noiz jarriko den indarrean eta zer ondorio izango dituen.

ATARIKO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Foru arauaren xedea.

Foru arau honen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan egonaldi turistikoaren gaineko toki izaerako zerga baten funtsezko elementuak sortzea eta arautzea.

calidad en el marco municipal que mejore la calidad alojativa turística, sin afectación grave ni deterioro de la calidad de los servicios públicos en los distintos municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La regulación de este impuesto sujeta a gravamen la especial capacidad económica de las personas físicas puesta de manifiesto por su estancia en los establecimientos de alojamiento turístico situados en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, con modulación de la carga tributaria atendiendo a las diversas realidades de la actividad turística en los diferentes municipios guipuzcoanos.

Con arreglo a lo dispuesto en el título preliminar, esta norma foral crea y regula un tributo instantáneo, que grava la especial capacidad económica de las personas físicas puesta de manifiesto por su estancia en establecimientos alojativos turísticos, con referencia también a las embarcaciones de crucero turístico, siendo competentes para su exacción los Ayuntamientos de Gipuzkoa donde radiquen los referidos establecimientos, con aplicación en todo el Territorio Histórico.

El título I de la norma foral regula el hecho imponible y las exenciones propias del tributo, quedando recogido en el artículo 4 el hecho imponible constituido por la estancia, por días o fracciones, con o sin pernoctación, que se realicen en establecimientos turísticos, y en el precepto subsiguiente, se enumeran los supuestos de exención del tributo, con los requisitos exigidos para su aplicación.

Por su parte, el título II de la presente norma foral regula el ámbito subjetivo de aplicación del impuesto. Define los sujetos pasivos del impuesto que incorpora a las personas físicas como contribuyentes, junto con la relevante incorporación de la figura de la persona sustituta del contribuyente y la regulación de supuestos de responsabilidad sobre la deuda tributaria.

Seguidamente, la norma foral establece en su título III la base imponible, en base a las unidades de estancia; la cuota tributaria, en función de diferentes tipos de gravamen mínimos y máximos atendiendo a la categorización de los diferentes establecimientos alojativos turísticos; la posibilidad de establecer bonificaciones y recargos; y, por último, el devengo y exigibilidad del impuesto se producirá al inicio de la estancia turística, por las unidades de estancia correspondientes.

Completando el articulado, el título IV refiere aspectos sobre la gestión del impuesto, entre los que se encuentran la autoliquidación e ingreso del tributo, con mención de la forma de identificación de los establecimientos afectados y la concreción de la obligación de información y el ámbito competencial que ampara las facultades de gestión, inspección, recaudación y revisión.

Además, el texto recoge tres disposiciones adicionales. La primera prevé la aplicación de los tipos de gravamen máximos previstos en la norma foral, en defecto de aprobación por parte de los ayuntamientos de la correspondiente ordenanza fiscal. Por su parte, la segunda, determina la no exigibilidad del impuesto a aquellas reservas que se hayan efectuado con anterioridad a 5 de febrero de 2026. Y por último, la tercera concreta un periodo de revisión y análisis de la norma foral.

Y, por último, las disposiciones finales incorporan, la primera, la modificación de la normativa municipal para incluir el tributo entre los ya regulados en el ámbito local, la habilitación normativa pertinente, la segunda, y, finalmente, la tercera, la entrada en vigor y efectos de la propia norma.

TÍTULO PRELIMINAR

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto de la norma foral.

La presente norma foral tiene por objeto crear y regular los elementos esenciales de un impuesto de carácter local sobre las estancias turísticas en los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. artikulua. Izaera eta aplikazio eremua.

1. Egonaldi turistikoaren gaineko zerga zeharkako tributu bat da, erreala eta berehalakoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udalerritan turismoko ostatu establezimenduetan egiten diren egonaldiak zergapetzen dituen, foru arau honetan ezarritakoaren arabera.

2. Foru arau honetan xedatutakoa Gipuzkoako Lurralde Historiko osoan aplikatuko da, uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau erregulatzailearen 19. artikuluko 1. apartatuan jasotakoarekin bat.

3. artikulua. Definizioak.

Foru arau honen ondorioetarako, definizio hauek ezartzen dira:

1) Ostatu zerbitzu turistikoak: helburu horretarako erabiltzen diren azpiegitura, instalazio, ekipamendu edo altzarietan ostatu hartzea ahalbidetzen duten zerbitzuak.

2) Egonaldia: ostatu zerbitzua erabiltzea, gaua bertan emanda edo eman gabe.

3) Egonaldi unitatea: establezimendu turistiko berean pertsonaren etengabeko egonaldiak irauten duen denbora, egunetan edo egun zatikitan konputatua.

4) Egonaldi jarraitua: pertsona bat turismoko ostatu establezimendu berean egotea, etenik gabe, erreserba, kontratu edo onarpen dokumentu bat edo gehiago egon ala ez.

Egonaldiak egiten badira maiz errepikatzen diren lan arrazoiengatik, lanik egiten ez den egunetako aldi baterako absentziek ez dute egonaldi jarraitua etenaraziko, betiere zergadunak establezimendu berean ostatu hartuta jarraitzen badu.

5) Gurutzantzia turistikoa: xede bakarra plazerra edo aisialdia izanik, itsasoz edo bide nabigagarrietatik bidaiariak garraiatzen dituen itsasontzi handia, beste zerbitzu asko ere badituen eta bertan bi gautik gorako egonaldia egitea dakarrena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko azaroaren 24ko 1177/2010 (EB) Erregelamenduak ezarritakoarekin bat (Itsasoz edo bide nabigagarrietatik bidaiatzen duten bidaiarien eskubideei buruzko Erregelamendua, 2006/2004 (EE) Erregelamendua aldatzekoa).

6) Ostatu plazen kopurua: turismo establezimenduko ohe finkeko kopurua, ohe osagarriak izan ezik. Ohe bikoitzak bi plaza direla joko da. Kanpinetan, plaza kopurua baimenduta duten pertsona kopurua adinakoa izango da.

7) Egonaldiaren egun edo zatiki kopurua: establezimendu turistikoak sartu eta irteteko ordutegiari buruz ezarritako arauak edo erabilerak aplikatzearen emaitza.

8) Intentsitate turistikoa: udalerrian dauden ostatu plazen ratioa, udalerriko zuzenbidezko biztanleen kopuruarekin alderatuta.

I. TITULUA

ZERGA EGITATEA ETA SALBUESPENAK

4. artikulua. Zerga egitatea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko hurrengo establezimendu turistikoetan zergadunek, eguneko edo zatikiko, egiten dituzten egonaldiek eratzen dute zergaren zerga egitatea, gaua bertan emanda zein eman gabe:

a) Turismo-establezimenduak, aplikatu beharreko turismo-araudian aurreikusitako kategorien arabera:

- 1) Hotelak.
- 2) Pentsioak.
- 3) Apartamentu turistikoak.

Artículo 2. Naturaleza y ámbito de aplicación.

1. El impuesto sobre estancias turísticas es un tributo real, indirecto e instantáneo que grava la estancia en los establecimientos de alojamiento turístico situados en cualquiera de los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en los términos establecidos en la presente norma foral.

2. Lo dispuesto en esta norma foral se aplicará en todo el Territorio Histórico de Gipuzkoa, de conformidad con el apartado 1 del artículo 19 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio, Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Artículo 3. Definiciones.

A efectos de la presente norma foral se entenderá por:

1) Servicios turísticos de alojamiento: los servicios que posibilitan el hospedaje en infraestructuras, instalaciones, equipamientos o mobiliarios destinados a tal fin.

2) Estancia: el disfrute del servicio turístico de alojamiento, con pernoctación o sin ella.

3) Unidad de estancia: cada día o fracción de día que comporta la estancia continuada de una persona en un mismo establecimiento de alojamiento turístico.

4) Estancia continuada: la permanencia ininterrumpida de una persona en un mismo establecimiento de alojamiento turístico, con independencia de que existan una o varias reservas, contratos o documentos de admisión.

En el caso de estancias por motivos laborales de carácter recurrente, las ausencias temporales correspondientes a días no laborables no interrumpirán la estancia continuada, siempre que la persona contribuyente continúe alojándose en el mismo establecimiento.

5) Embarcación de crucero turístico: aquella embarcación que realiza transporte por mar o por vías navegables con la única finalidad de placer o recreo, complementado con otros servicios y con estancia a bordo superior a dos noches, recogida en el Reglamento (UE) n.º 1177/2010 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 24 de noviembre de 2010, sobre los derechos de las y los pasajeros que viajan por mar y por vías navegables y por el que se modifica el Reglamento (CE) n.º 2006/2004.

6) Número de plazas alojativas: número de camas fijas del establecimiento turístico, excluidas las supletorias. Las camas de matrimonio computarán como dos plazas. En los campings el número de plazas se corresponde con la capacidad autorizada en personas de que dispongan.

7) Número de días o fracciones de la estancia: el o la que resulta de la aplicación de las normas o los usos sobre horarios de entrada y salida fijados por los establecimientos turísticos.

8) Intensidad turística: la ratio de plazas alojativas existentes en el municipio respecto del número de habitantes de derecho en el término municipal.

TÍTULO I

HECHO IMPONIBLE Y EXENCIONES

Artículo 4. Hecho imponible.

Constituye el hecho imponible del impuesto la estancia, por días o fracciones, con o sin pernoctación, que las personas contribuyentes realicen en el Territorio Histórico de Gipuzkoa en los siguientes establecimientos de alojamiento turístico:

a) Los establecimientos turísticos, conforme a las categorías previstas en la normativa turística aplicable:

- 1) Los establecimientos hoteleros.
- 2) Las pensiones.
- 3) Los apartamentos turísticos.

- 4) Kanpinak eta kanpatzeko beste modalitate batzuk.
 - 5) Nekazaritza-turismoko establezimenduak.
 - 6) Landetxeak.
 - 7) Aterpetxeak.
 - 8) Turismoko beste ostatu establezimendu batzuk.
- b) Erabilera turistikoko etxebizitzak, turismoari buruzko arau-
di aplikagarrian aurreikusitako modalitateen arabera:
- 1) Erabilera turistikoko etxebizitzak, osorik alokatuak.
 - 2) Erabilera turistikoko etxebizitza partikularrak, logelaka alokatuak.
- c) Itsas bidaia turistikoko ontziak: Gipuzkoako portu ba-
tean egiten dutenean geldialdia.

Aurrekoaren arabera, irteera edo helmuga Gipuzkoako portu batean duten gurutzaontzien bidaien hasierak eta iritsierak kanpoan geratzen dira.

Ondorio horietarako, geldialdia egin dela ulertuko da gurutzaontzi turistikokoak Gipuzkoako portu batean ainguratuta edo amarratuta daudenean.

5. artikulua. *Salbuespenak.*

Zergaren aplikaziotik salbuespena daude honako hauek:

a) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioko edozein Estatu kide-tako Administrazio publikoek helburu turistikoei antolatutako gizarte programek diruz lagundutako egonaldiak.

Salbuespen kasu hau aplikatu ahal izateko, bi agiri hauetako bat aurkeztu beharko da: egindako erreserbaren frogagiria edo programa soziala sustatzen duen entitateak luzatutako faktura, non identifikatu behar baita zein programa den, zer Administrazio publikok finantzatzen duen eta zein pertsona diren haren onuradunak.

b) Hemezortzi urtetik beherako pertsonen egindako egonaldiak.

Salbuespen hau aplikatzeko, adingabearen nortasuna eta adina frogatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira (nortasun agiria, pasaporte, familia liburua edo antzeko beste dokumentu batzuk), eta halako dokumentaziorik eduki ezean, gurasoaren, tutorearen edo adin nagusiko laguntzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

c) 100eko 65eko desgaitasun maila edo handiagoa edo II. edo III. gradu-ko mendekotasuna frogatzen duten pertsonen egonaldiak, bai eta haiekin doazen pertsonenak ere; desgaitasun edo mendekotasuna duen pertsona bakoitzeko gehienez laguntzaile batena.

Salbuespen hau aplikatzeko, ezinbestekoa da agiri bidez frogatzea salbuespenaren egitatezko baldintzak bete egiten direla, eta zergadunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar du, dela pertsona desgaitu gisa, dela mendeko pertsona gisa, dela laguntzaile gisa.

Erantzukizunpeko adierazpenak desgaituaren edo mendeko pertsonaren identifikazio-datuak jaso beharko ditu, bai eta, hala badagokio, harekin doan pertsonarenak ere. Ukitutako pertsona bat baino gehiago badira, erantzukizunpeko adierazpena batera aurkez daiteke, eta haren barruan zergadun guztien datuak jaso beharko dira. Kasu horretan, nahikoa izango da adierazpen hori haie-tako batek bakarrik sinatzea, adinez nagusia bada.

d) Turismoko ostatu establezimenduetan ematen diren egonaldiak, haien arrazoi-
a hezkuntza sistemako maila eta gradu guztietako ikasketak egitea (unibertsitateko hirugarren ziklora arte) edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoek antolatutako ikerketa akademikoko planetan edo talentu programetan parte hartzea denean.

- 4) Los campings y otras modalidades de acampada.
 - 5) Agroturismos.
 - 6) Casas rurales.
 - 7) Los albergues.
 - 8) Otros establecimientos de alojamientos turísticos.
- b) Las viviendas de uso turístico, conforme a las modalidades previstas en la normativa turística aplicable:
- 1) Las viviendas para uso turístico cedidas enteras.
 - 2) Las viviendas particulares para uso turístico cedidas por habitaciones.
- c) Las embarcaciones de crucero turístico: cuando realicen escala en un puerto de Gipuzkoa.

De acuerdo con lo anterior, no se incluyen los inicios ni las llegadas de los cruceros con salida o destino final en un puerto de Gipuzkoa.

A estos efectos, se entenderá realizada la escala cuando las embarcaciones de crucero turístico estén fondeadas o amarradas en un puerto de Gipuzkoa.

Artículo 5. Exenciones.

Están exentas de la aplicación del impuesto:

a) Las estancias subvencionadas por programas sociales con fines turísticos organizados por las Administraciones públicas de cualquier Estado miembro de la Unión Europea o que forme parte del Acuerdo del Espacio Económico Europeo.

Para acreditar este supuesto de exención será precisa la justificación documental de la reserva efectuada o la factura a cargo de la entidad promotora del programa social en la que se identifique el programa y la Administración pública a cargo de la cual se financia la estancia, así como una relación de las personas beneficiarias del programa.

b) Las estancias efectuadas por personas de edad inferior a dieciocho años.

La aplicación de esta exención está condicionada a la exhibición de documentos que acrediten la identidad y edad del o de la menor (documento de identidad, pasaporte, libro de familia u otros documentos análogos) o a la presentación de declaración responsable por parte del progenitor o progenitora, tutor o tutora o acompañante mayor de edad, en caso de no disponer de documentos acreditativos.

c) Las estancias de personas que acrediten un grado de discapacidad igual o superior al 65 por 100 o de dependencia de grado II o grado III, así como las de las personas que las acompañen, con un máximo de un acompañante por cada persona con discapacidad o dependencia.

La aplicación de esta exención está condicionada a la exhibición de los documentos que acrediten las circunstancias determinantes de la concurrencia del supuesto de hecho de la exención, así como a la presentación, por la persona contribuyente, de una declaración responsable, ya sea como persona discapacitada o dependiente, ya sea como acompañante.

La declaración responsable debe incluir los datos identificativos de la persona discapacitada o dependiente, y en su caso, de la persona que la acompaña. En el caso de que sean varias las personas afectadas, la declaración responsable puede presentarse de forma conjunta, debiéndose hacer constar los datos de todas las personas contribuyentes. En ese supuesto, bastará con la firma de una de ellas, siempre que sea mayor de edad.

d) Las estancias en los establecimientos de alojamiento turístico con motivo de cursar estudios en todos los niveles y grados del sistema educativo hasta el tercer ciclo universitario, investigación académica o por programas de talento organizadas por las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, agiri bidez frogatu behar da salbuespenaren egitatezko baldintzak bete egiten direla.

e) Edozein pertsonak osasun arrazoiengatik egiten dituen egonaldiak, bai eta harekin doazen pertsonenak ere. Tratamendua behar duen pertsona bakoitzeko, laguntzaile bat onartuko da gehienez.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, zergadunak osasun zentroaren ziurtagiri bat edo txosten mediko bat aurkeztu behar du, bertan adierazita jasotako osasun laguntza Euskal Osasun Zerbitzuaren zerbitzu zorroaren parte dela. Horri erantzukizunpeko adierazpen bat erantsi beharko zaio, dela pazientearena, dela laguntzailearena, eta bertan pazientearen identifikazio datuak jaso behar dira, bai eta harekin doan pertsonena ere, halakorik bada. Ukitutako pertsonak bat baino gehiago badira, erantzukizunpeko adierazpena batera aurkez daiteke, zergadun guztien datuak barruan sartuta, eta ukitutako zergadunetako batek bakarrik sinatu ahal izango du, baldin eta adinez nagusia bada.

f) Ezinbesteko kausengatik egiten diren egonaldiak.

Salbuespen honen ondorioetarako soil-soilik, ezinbesteko kausatzat hartuko dira honako hauek: hondamendi naturalengatik, larrialdi egoerengatik edo pertsonentzat aparteko arriskua dakarten indarkeriazko ekintzengatik aurreikusi ezin daitezkeen gertakariak edo, aurreikusgarriak izanik ere, saihestezin gertatzen direnak, establezimendu turistikoa urgentziaz eta behin-behinean okupatu beharra dakartenean edo larrialdi edo segurtasun publikoaren alorreko neurri publikoren bat aktibatzea eragiten dutenean.

Era berean, eta salbuespen honen ondorioetarako soil-soilik, ezinbesteko kausek eragindakoekin parekatzen dira zergadunak, etxebizitza fisikoki ezin erabiltzea dakarten ezohiko zirkunstantzia objektiboengatik, bere egoitzako udalerrian egiten dituen egonaldiak. Horrelakoak gertatuko dira, esate baterako, etxebizitzan ezin denean bizi bertan obrak egin behar izateagatik edo bertan ezbeharren bat gertatzeagatik.

Salbuespen hau aplikatzeko, zergadunek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute (ukitutako zergadunak bat baino gehiago izanez gero batera aurkeztu daitekeena), eta, bertan gertakaria zein izan den utzi beharko da jasota; harekin lotuta neurri publikoren bat aktibatu bada, hura frogatu beharko da segurtasun publikoaren edo larrialdien arloan eskumena duen Administrazio publikoak emandako dokumentua erantsita, salbu eta ezinbestekotasuna ekarri duten zirkunstantziak legezko deklarazio baten edo udal administrazioak ezagutzen duen ageriko egoera baten ondorio badira. Erantzukizunpeko adierazpenean zergadunen identifikazio datuak jaso beharko dira, eta haietako edozeinek sinatu ahal izango du, adinez nagusia bada.

II. TITULUA

EREMU SUBJEKTIBOA

6. artikulua. *Subjektu pasiboak.*

1. Foru arau honetako 4. artikuluan aipatutako turismoko edozein ostatu establezimendutan egonaldi bat egiten duten pertsona fisiko guztiak izango dira zergaren subjektu pasibo, zergadun gisa.

Turismoko gurutzaontzien kasuan, zergaduntzat hartuko dira zergaren sortzapenaren unean igarobidean dauden itsasontziko bidaiariak.

2. Zergadunaren ordezkotza gisa, honako hauek egongo dira behartuta foru arau honetan eta berau garatzeko xedapenetan

La aplicación de esta exención está condicionada a la acreditación de las circunstancias determinantes de la concurrencia del supuesto de hecho de la exención.

e) Las estancias que efectúe cualquier persona por motivos de salud, así como las de las personas que la acompañen, con un máximo de una persona acompañante por cada persona que precise tratamiento.

La aplicación de esta exención está condicionada a la presentación por la persona contribuyente de un certificado del centro sanitario o informe médico en que conste que la asistencia sanitaria recibida forma parte de la cartera de servicios del Servicio Vasco de Salud y de una declaración responsable, ya sea como paciente, ya sea como acompañante. La declaración responsable debe incluir los datos identificativos del o de la paciente y, en su caso, de la persona que lo acompaña. En el caso de que sean varias las personas afectadas, la declaración responsable puede presentarse de forma conjunta, debiéndose hacer constar los datos de todas las personas contribuyentes, y pudiendo ser firmada solo por una cualquiera de las personas contribuyentes afectadas que sea mayor de edad.

f) Las estancias que se efectúen por causas de fuerza mayor.

A los exclusivos efectos de esta exención, se entienden por causas de fuerza mayor los acontecimientos imprevisibles, o que, aun siendo previsibles, resulten inevitables y estén relacionados con catástrofes naturales, situaciones de emergencia o actos violentos que impliquen un riesgo extraordinario para las personas, determinante de la necesidad de ocupar de manera urgente y provisional el establecimiento turístico o que supongan la activación de alguna medida pública en materia de emergencias o de seguridad pública.

Asimismo, y exclusivamente a los efectos de esta exención, se asimilan a fuerza mayor las estancias que se efectúen en el mismo municipio de residencia de las personas contribuyentes como consecuencia del acaecimiento de circunstancias extraordinarias y objetivas que supongan una imposibilidad física de utilización de la vivienda, tales como las estancias por obras o por siniestros producidos en la vivienda que impidan su habitabilidad o circunstancias similares.

